



**LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, "EUSKALMET- EUSKAL METEOROLOGIA
AGENTZIA, S.A." SOZIETATE ANONIMO PUBLIKOAN PARTAIDETZAK
SORTU ETA EROSTEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRARI BAIMENA EMATEARI BURUZKO
MARTXOAREN 12KO 29/2024 DEKRETUA ALDATZEN DUEN DEKRETU-
PROIEKTUARI BURUZKOA**

**88/2025 LT- LGKAKZ
DNCG_DEC_5928/25_07**

I.- AURREKARIAK

2025eko irailaren 9an, Segurtasun Saileko Arlo Juridikoak Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari eskatu zion goiburuan aipatutako dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko legezkotasun-txostena egiteko.

Dekretua egiteko espedienteari alta eman zaio Tramitagunen, DNCG_DEC_5928/25_07 zenbakiarekin, eta, 144/2017 Dekretuaren 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ekimenaren espediente osoa sartu da. Espediente hori Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako dokumentuek osatzen dute.

Zehazki, honako dokumentu hauek erantsi dira:

- Dekretu-proiektuaren zirriborroa, 2025eko abuztuaren 20koa.
- Agindua, 2025eko abuztuaren 21ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, dekretua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.
- Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren 2025eko abuztuaren 22ko txostena, genero-ikuspegitik garrantzirik ez duela adierazten duena.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



- Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren 2025eko abuztuaren 22ko dekretu-proiektuaren arau-eraginaren azterketari buruzko memoria.

- Agindua, 2025eko abuztuaren 25ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, dekretu-proiektuari alde aurreko onarpena ematen diona.
- Txostena, 2025eko abuztuaren 29koa, Gobernu Irekirako eta Gobernu Onerako Zuzendaritzarena.
- Txostena, 2025eko irailaren 1ekoa, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.
- Txostena, 2025eko irailaren 1ekoa, Emakunderen genero-eraginari buruzkoa.
- Memoria ekonomikoa, 2025eko irailaren 3koa, Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzarena.
- Memoria, 2025eko urriaren 2koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzarena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari txostena eskatzen diona.

Txosten hau ematen da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 9. eta 11.2 e) artikuluetan xedatutakoaren arabera. Aipatutako arau-aurreikuspenez gain, legezketasun-txostena egiteko eskumen organikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.i) artikuluan dago zehaztuta, bai eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 14.1.c) artikulua Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari emandako eskumenetan oinarrituta ere.

II.- PROIEKTUA EGITEA

Aztertzen ari garen arau-proiektua xedapen orokor gisa izapidetu da, antolamenduaren arlokoa da eta antolamendu juridikoa berritzen du. Hala, Dekretuaren forma hartzen du. Xedapen honen kontzeptua eta izaera kontuan hartuta, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legea aplikatu behar zaio xedapen honi, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Dekretu-proiektua egiteko prozedura 6/2022 Legearen ondoriozko faseetan eta arauen arabera gauzatu da. Bestalde, araua izapidetzeko espedientean jasota dago lege horretan eskatutako dokumentazioa, aurreko atalean zerrendatu dena.

III.- XEDEA

Txostena egiten ari gatzaizkion arau-proiektuaren xedea da martxoaren 12ko 29/2024 Dekretua aldatzea. Dekretu horren bidez, baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari "Euskalmet-Euskal Meteorologia Agentzia SA" sozietate anonimo publikoan partaidetzak sortu eta erosteko.

Aldaketa horren zentzua eta helburua sozietatearen estatutuetako 38. artikuluan bigarren atal bat sartzea da, zuzendaritza duen pertsonaren izendapenari buruzkoa, aplikatuko zaion araubide juridikoa zehazteko.

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak ezartzen duenez, sozietate publikoetako zuzendaritza nagusiak zuzendaritza-organoak dira. Hala ere, goi-kargudunaren izaera (edo horrekin parekatua) ez dator automatikoki sailkapen horretatik. Gaur egun, Euskalmet-Euskal Meteorologia Agentzia SAren zuzendaria zuzendaritza-organoa da, baina ez goi-karguduna.

Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien gatazka eta interesak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, EAEko sektore publikoko zuzendaritzako langileei aplikatzen zaie, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 7. artikuluan definitutakoei, EAEko Administrazioaren goi-kargura indarrean dagoen araudiaren arabera.

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen xedapen indargabetzailearen arabera, indargabetuta geratu da 7. artikuluko horren edukia, eta, horrenbestez, lege horren 9. artikuluko edukia hartu behar dugu kontuan. Izan ere, artikuluko horren arabera, EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeek osatzen dute, bai administrazio orokor instituzionala osatzen dutenek, bai sektore publikoko erakunde instrumentalek, horien artean sozietate publikoak daudenek.

Argi dago Euskalmeten zuzendaritza bere gain hartzen duenak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean araututako jokabide-kodea bete behar duela.

Interesgarria da, halaber, Euskalmeten Zuzendaritzara sartzeak Administrazioetik datozen eta lanpostua gordetzea eskatzen duten pertsonen karrera profesionalean oztoporik sor ez dezan laguntzen duen hobekuntza delako zerbitzu berezietako egoeran geratu ahal izatea, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 138 c) artikuluko jasotzen duen bezala.

IV.- ESKUMENA

Aztertzen ari garen proiektu honen azken oinarria administrazio-antolaketaarako ahalmen autonomikoa da, EAEk bere Autonomia Estatutuaren bidez bere gain hartutako eskumen-sare substantiboaren zerbitzurako tresna-izaera baitu, haren 10.2 artikuluko xedatzen duenaren arabera. Horrek esan

nahi du, laburbilduz, antolaketa-izaerako proposamen bat aztertzen dugula, Administrazioaren antolamendu-ahalmena baita kasu honetan aktibatzen dena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 11.1.i) artikuluan xedatutakoaren arabera, Segurtasun Sailari dagokio meteorologiaren arloa.

V.- PROZEDURA

Euskalmet Euskal Meteorologia Agentzia SAren estatutuak aldatzeko, sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiaren erabakia behar da, Estatutuen 20. artikuluan xedatzen den bezala, eta Gobernu Kontseilua Batzar horretako bazkide bakarra da, 29/2024 Dekretuaren 7. artikuluen arabera.

Era berean, sozietateko zuzendaritza-postuei eragiten dien aldaketa denez, Jaurlaritzaren baimena beharko da, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 45.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3/2022 Legearen 45.5 artikuluen arabera, Sozietatearen Estatutuen 45. artikuluen 2. paragrafoak xedatzen du horiek aldatzeko Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dela, ogasunaren arloan eskumena duen sailaren proposamenez, segurtasun-arloan eskumena duen sailaren ekimenez, merkataritza-legeriaren arabera hartu beharreko gizarte-akordioak onartu aurretik.

VI.- EDUKIA

Adierazi den bezala, dekretu-proiektuaren xedea 29/2024 Dekretua aldatzea da, merkataritza-sozietate publikoaren estatutuetako 38. artikuluari bigarren atal bat gehituz. Honela idatzita geratuko litzateke:

1. Batzar orokorrak izendatuko eta kargugabetuko du zuzendaria, Administrazio Kontseiluak proposatuta, kapital sozialaren gehiengoz.
2. Izendatutako pertsona Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko goi-kargudunaren parekotzat joko da, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea aplikatzeko.

VII.- ONDORIOA

Aurrekoa azalduta, aldeko irizpena ematen zaio Euskalmet-Euskal Meteorologia Agentzia sozietate anonimoa sortzeko eta sozietate horretan partaidetzak erosteko EAEko Administrazio Orokorrari baimena emateari buruzko martxoaren 12ko 29/2024 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari.

Hau da egiten dudan txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dudana.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.